

DNSH ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAREN **AUZOAK PROGRAMAKO** laguntzak emateko deialdia, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (Europar Batasunak finantzatua – Next Generation EU)

..... jaunak/andreak, NAN zenbakidunak, (*teknikariaren titulazioa*),
.....(e)ko elkargo ofizialekoak eta elkargokide zenbakidunak,
.....(r)en izenean eta hura ordezkatzuz (IFZ:.....)

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

(“Laguntzak eskatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa” I. eranskineko n) puntua betetzea; 349/2022 Ebazpena, maiatzaren 25ekoa, Etxebizitzako zuzendari nagusiak emana)

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruko deialdi horri dagozkion laguntzak eskatzeko aurkeztutako “.....” proiektuaren egilea da.

Laguntzak eskatzeko aurkeztutako **proiektu** horrek eta programa horren barruko jarduketek honako hau betetzen dute:

- Horren barruan egiten diren jarduerak ez diete kalte nabarmenik eragiten ingurumen helburu hauei, ingurumenaren aldetik jasagarriak diren jarduera ekonomikoak sailkatzeko sistema (edo «taxonomia») ezarri inbertsio jasagarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzko 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikuluen arabera:
 - Klima-aldaketa arintzea.
 - Klima-aldaketara moldatzea.
 - Ur- eta itsas-baliabideak modu jasagarrian erabiltzea eta babestea.
 - Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne.
 - Atmosferako, uretako edo lurzoruko kutsaduraren prebentzioa eta kontrola.
 - Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratztea.
- Jarduketek 691/2021 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak betetzen dituzte, eta 2. osagaian finkatutako ezaugarri eta baldintza espezifikoetara egokitzen dira, ingurumen-helburu bakoitzerako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean islatutakoetara:

Ingurumen-helburua	Jarduketek bete beharreko baldintza espezifikoak
1. Klima-aldaketa arintzea	Energia efizientzia hobetuko da 2010/31/EB Zuzentarauaren arabera. Horrek kontsumo txikiagoak eraginen ditu eta, ondorioz, BEG emisio gutxiago.*
2. Klima-aldaketara moldatzea	Ez da baldintza espezifikorik zehazten, jarduketek helburu hori hobetzea dakarte (eraikinen eta ingurunearen baldintzak hobetzea).
3. Ur- eta itsas-baliabideak	Ez da baldintza espezifikorik zehazten, jarduketek ez baitute eragin nabarmenik izan behar helburu horretan.
4. Ekonomia zirkularra	Proiektu mailako baldintza espezifikoak: * i. Eraikuntza lekuan sortutako eraikuntza- eta eraipen-hondakin ez-arriskutsuen % 70 gutxienez (pisuan), –alde batera utzita 2000/532/EC Erabakiak ezarritako Europako

	Hondakinen Zerrendan 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala–, berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balorizatzeko prestatuko dira, betelanak barne, hondakinek beste material batzuk ordezkatzeko erabil daitezzen, bat etorri Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 8. artikuluan ezarritako kutsadura-hierarkiarekin eta Eraikuntza- eta eraipen-hondakinak kudeatzeko Europako protokoloarekin. ii. Eraikuntzarekin eta eraipenarekin lotutako prozesuetan, operadoreek hondakinen sorrera mugatu beharko dute, EBko eraikuntza- eta eraipen-hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorri eta eskura dauden teknika onenak kontuan hartuta, eta eraipen selektiboa erabiliz substantzia arriskutsuak segurtasunez ezabatu eta manipulatu ahal izateko eta materialak selektiboki ezabatuz kalitate handiko berrerabilera eta birziklatzea errazteko, eraikuntza- eta eraipen-hondakinetarako eskuragarri dauden sailkapen sistemak erabiliz. Era berean, eraipena ahal dela gaika egingen da, eta sailkapena hondakinak sortzen diren lekuan egitea lehenetsiko da. iii. Eraikinen diseinuetan eta eraikuntza teknikek zirkulartasunaren alde egingen dute, eta, zehazki, ISO 20887 arauari edo eraikinen desmuntatzeko edo egokitzeko gaitasuna ebaluatzeko beste arau batzuei erreferentzia eginez, erakutsiko dute, batez ere, nola dauden diseinatuak baliabideen erabilerari dagokionez eraginkorrak izateko, moldagarriak, malguak eta desmuntagarriak, gerora berrerabili eta birziklatu ahal izateko.
5. Kutsadura	Ez da eragin nabarmenik espero. Neurri honetan aurreikusitako jarduketak egiteko erabilitako osagaiek eta eraikuntza materialek ez dute amiantorik edukiko, ezta substantzia oso kezagarriarik ere. Substantzia horiek 1907/2006 (EE) Erregelamenduaren XIV. eranskineko baimenaren menpeko substantzien zerrendan daude identifikaturik. *
6. Biodibertsitatea eta ekosistemak	Ez dago baldintza espezifikorik zehaztuta, jarduketek ez baitute eragin zuzenik edo zeharkakorik izan behar biodibertsitatean edo ekosistemetan.

(*) 691/2021 Errege Dekretuan ezarritako programaren betekizunak.

c) Erantzukizunpeko adierazpen honen xede diren jarduketek aplikatzeko den DNSH printzipioaren helburuekin lotutako indarreko araudia beteko dute.

d) Proiektuan eta horrekin batera doan hondakinen kudeaketari buruzko azterlanean deskribatutako jarduketek ekonomia zirkularraren helburuaren ebaluazio substantiborako ezarritako irizpide espezifikoak, b) atalean deskribatutakoak, betetzen dituzte, honako honen arabera:

Oraingo eraikinek ezarritako baldintzatzaileetatik abiatzen da proposatutako eraikinen birgaitzea. Ondorioz, eraikuntza zirkularraren irizpideak kontuan hartu dira, esku-hartze zehatzek ahalbidetzen duten neurrian.

Aintzat hartutako eraikuntza teknikek zirkulartasuna babesten dute: beharrezko neurriak hartu dira proposatutako jarduketan ondoriozko eraikuntzako eta eraipeneko hondakinen (EEH) % 70 gutxienez berrerabiltzeko, birziklatzeko eta berreskuratzeko.

Adierazpen honetan ezarritako betekizunen bat betetzen ez bada, itzuli egin beharko dira jasotako laguntzak, bai eta dagozkien berandutze-interesak ordaindu ere.

Eta hala ager dadin, honako hau sinatzen dut(e)n, sinadura digitalaren egunean.

Teknikari eskudunak sinatuta.